



beste barik, errealidadea eraldatzeko



www.muxotepotolobat.com



Neuk ez bada, nork egingo ete dau?

www.mensajesenredados.com

apirila-maiatza 2013

Neuk ez bada, nork egingo ete dau?

mezu
kateatuak

GOGOETA

Segurutik, behin baino gehiagotan entzungo genduan pobretasunak emakumezkoaren arpegia dauala. Hain zuzen be, munduan zehar aurkitzen doguzan desbardintasun eta bidebakokeriak are eta gordinagoak dira emakumezkoen kasuan, eurak dira eta kaltetuenak garapenaren esparru desbardinetan. Datu batzuk aitatzearren, munduko elikagai-ekoizpenaren arduradunei jagokenez, esate baterako, %85eko kopuru esanguratsua emakumezkoena da, horren parean, %2k bakarrik daualarik lursailak eskuratzeko eta kontrolatzeko aukerea eta %10ak dirua eskuratzeko eta kontrolatzekoa. Gaur egun be, herrialde askotan, egundoko oztopoak daukiez neskatok hezkuntza jadesteko, probetxu gehiago ateraten jakelako etxeko lanak egiten edo euren neba-ahiztak zaintzen. Eskolatzte-tasarik txarrenak Afrika Subsahararrean dagoz, neskatoen %60a baino ez dalako eskolara joaten.

Gure inguruan, orokorrean, gizonezkoen eta emakumezkoen eskubideen bardintasuna dagoeneko irabazita dagoan bataila dala uste bada be, zoritxarrez hori holan ez dala erakusten deuskuen datuak aurkitzen doguz han eta hemen. Lan munduari begiratu ezker, hauxe nabarmendu daikegu: alde batetik, langabeziak egundoko eragina dauala emakumeen artean eta, gainera, Estatu espainiarrean %16tik gorako batez besteko aldea dagoala gizonezkoen eta emakumezkoen ordainsarrietan. Gainera, aldi baterako lanean diharduan gizon bakotxeko, sei emakume dagoz baldintza horreetan, behin-behinekotasuna handiagoa dalarik euren artean.

Familia bizitzari jagokonez, emakumezkoen gain jausten da, gehien bat, menpekotasunen bat daukien senideen zainketa eta etxeko lanen ardurea. Izan be, gure inguruan, zazpi gizonetatik bakarrak eskaintzen deutso emakumeak beste denpora seme-alaben zainketari.

Azkenik, ezin ahaztu indarkeria matxistaren izugarritzko gatxa. Azken hamar urteetan, 678 emakume hil dabez indarkeria horren eraginez. Emakume askok eta askok bere etxean giltzapeturik bizi behar dau, bildurrak jota eta mehatxatuta. Alkarrenganako errespetuan oinarritutako bidezko hezkuntzaren bidez baino ezingo dogu hainbeste samin eragiten dauan gatx hau gainditu.

ekintza

Beharbada, aitatu barri doguzan datuetako batzuk urrunekotzat joko doguz edo gauzak aldatzea ez dagoala gure esku pentsarazo leuskigie. Baina ekintza hau geure etxean bertan kokatzen da, gizartean bizi gura doguzan bardintasunezko balio horreek etxean, eguneroko jarduera arruntetan, martxan jarri daikeguzala eta jarri behar doguzala konturatu gaitezana.

Gure etxean, edozein etxetan, makina bat gauza dago egiteko. Gure inguruan, lan horreek emakumeei egotzen deutseguz, euren ardurea dala pentsatzen dogu, eurek aukeratu dabelako edo, jakinaren gainean ala ez, horretara behartu egin dabezalako. **Hilabete zehar, idatzi zenbat denpora** eskaintzen deutzazun ezinbesteko egitekooi: garbitasuna, sukaldeko kontuak, plantxa egitea, etxeko gauzak konpontzea, otorduak egitea, erosketak, menpekotasunen bat daukien personak (nagusiak edo umeak) zaintzea... Baloratu denpora hau eta erantzun itaun honeei: **Egiten ez dodana, neuk ez bada, nork egiten dau? Zer egiten dot gauza horreetan ez nabilenean? Zer egin neikean lan horreek egiten nenbilenean?**

Komentatu zugaz bizi diranakaz, kasua bada, eta batera jarri ia danok bat zatozen zuon etxeko martxa horregaz.

Hurrengo hilabetean, normalean egiten ez dozun horretako **zerbait egitea proposatu** zeure buruari. Zeri uko egin behar deutzazu horretarako? Hilabeteren buruan, pentsatu, zertan aberastu zaitu denpora hori etxeko lanetan edo norbait zaintzen erabili izanak?